

Txina nazioarteko testuinguruan: oihalgintza eta jantzigintza

Elena Martínez Tola, Efren Areskurrinaga eta Xabier Barrutia
Ekonomia Aplikatua I Saila, EHU

Artikulu honetan Txinako ekonomiak azken hamarkadetan edukitako ibilera aztertzen dugu. Era berean, ekonomi hazkundeak berarekin dakartzan kontraesanak nabarmentzen ditugu, batez ere lurraldeen arteko garapen desorekatua.

Bestalde, oihalgintza eta jantzigintza sektoreak interesgarriak dira Txinako bilakaera ekonomikoa ulertzeko orduan. Sektore horien lehiakortasuna ez da lan-esku merkean oinarritzen bakarrik, baizik eta hainbat aldagaitan (teknologian, clusterretan, eta abarretan). Herrialde honen barne-merkatuak eta bere esportazio gorakorrek mehatxuak eta aukerak sortzen dituzte herrialde garatuetan zein garapen-bidekoetan.

The article analyses the evolution of economy in China during the last decades. In the same time, it stands out contradictions economical increasing has, specially the unequal development among different regions.

Textile and clothing sectors are a very interesting instrument to understand the economical evolution in China. The competitiveness of these sectors is not based only on the cheap workforce, also in some other variables, such as technology, clusters...

China's internal market and its increasing exportations provokes both threats and opportunities nor within developed countries nor in the developing ones.

1. Sarrera

Azken hamarkadetan Txinako ekonomiaren bilakaerak arreta berezia jaso du bi arrazoi nagusigatik. Garapenaren ikuspegitik, munduko herrialderik populatuena hazkunde ekonomiko harrigarria edukitzea berri ona da. Hazkunde horrek, ordea, ez du modu berean hartzen herrialde osoa, Txinako ekialdeko kostaldera mugatuz hein handi batean. Are gehiago, per capita errenta eta populazioaren bizibaldintzak hobetzen badoaz ere, errentaren banaketan eta oinarritzko zerbitzuetarako lorpidean desberdintasun nabarmenak daude, gizarte-aurrerabidea ekonomi arrakasta baino motelago doalako seinale garbia.

Herrialde garatu eta aberatsen ikuspegitik, Txinako ekonomiaren aurrerabidea aukera baino mehatxu gisa hartzen da. Bere ekonomi eredu esku-hartzaileak zalantzan jartzen ditu azken hiru hamarkada hauetan Mendebaldeko erakunde eta gobernuek babestutako merkatua, liberalizazioa eta merkataritza-irekieraren aldeko gomendioak. Txinatar jatorria duten produktuen sarrera masiboak Mendebaldeko herrialdeen merkatuetan bertako lanpostuak eta produkzio industrialak ezbaian izatea ekarri du, batez ere, Txinaren lehia hau nabarmenagoa den sektore produktiboetan. Horren lehendabiziko adierazpena oihalgintzan, eta batez ere, jantzigintzan gertatu da. Mendebaldeko herrialdeen lau hamarkada luzeko babesneurriak ez dira gai izan oihalgintza eta jantzigintza sektoreak birmoldatzeko Txinatik zetorren lehia honi aurre egin ahal izateko. Txinako ekonomiak 1980ko hamarkadatik aurrera izan duen hazkundearekin eta dibertsifikazioarekin jarraituz gero, arrisku hau beste sektore industrialetara zabal liteke.

Pazifiko inguruko herrialdeek ere kezka ikusten dituzte Txinaren industrializazio-prozesu hazkorra eta bertako manufaktura-gaien esportazio-ahalmena. Asiako Herensugeak (Hong Kong, Hego Korea, Taiwan eta Singapur) negozio-aukera onak aurkitzen dituzte Txinako ekonomiaren hedapen-prozesu honetan, baina aldi berean, kezka ikusten dute Txinako esportazioen balio erantsi gorakorak nazioarteko merkatuetan eurek duten zatia arriskuan jartzea.

Esportazio-ahalmena lan-eskuek diren sektoreetako manufaktura-gaien produkzioan —esaterako, oihalgintza eta jantzigintza— oinarritu duten Hegoaldeko beste ekonomia batzuek, beren nazioarteko lehiakortasuna oso azkar murrizten ari dela sumatzen dute, batez ere, Munduko Merkataritza Erakundeak sustatutako Oihalgintza eta Arroparen Hitzarmena 2005eko urtarrilaren 1ean amaitzean mota honetako produktuen merkataritzan nazioarte mailan osatutako ingurune liberalizatuan.

Bestalde, Txinan garatutako ekonomi ereduak bere kontraesanak ditu. Horien artean honakoak dira aipagarrienak: erregio-desoreka, landa-eremuaren eta hiriarren arteko dikotomia, eredu hedakorren ingurumen-kostuak, edo produkzio-eredua sostengatzen duten lan-baldintza kaskarrak. Esparru makroekonomikoan ere, gero eta ahots gehiagok aipatzen dituzte Txinako ekonomiaren berotzea, banku-sistemaren efizientziarik eza eta epe laburreko atzerriko kapitalen etorrerak sortutako desorekak, eta enpresa publikoen birmoldaketak, besteak beste.

Artikulu honek arestian aipatu gai batzuk jorratzen ditu. Lehenengo atalean, 1980ko hamarkadatik aurrera Txinako ekonomiak izan dituen ezaugarri nagusiak

aztertzen dira, arreta berezia jarriz Txina baitako erregio-desberdintasunari eta Txinako ekonomiaren dibertsifikazio- eta irekiera-estrategietan ardatz izan diren atzerriko inbertsio zuzenei eta esportazioari. Bigarren atalean, Txinako oihalgintzako eta jantzigintzako produktuen abantaila konpetitiboaren oinarriak aurkezten dira. Sektore horien analisiak interesgarri deritzegun zenbait gai agerrarazten ditu. Batetik, Mendebaldeko ekonomietan eragina handia izan daiteke. Mendebaldeko produktugile batzuk, Zara edo H&M kasu, munduko liderrak dira, baina beste enpresa askok ez dute denbora behar bezala aprobetxatu teknologikoki gaurkotzeko merkataritzaren babesgintza handiak irauten zuen bitartean. Bestetik, Txinako oihalek eta jantziek nazioarteko merkatuetan duten arrakastak zalantzan jartzen du Hirugarren Munduko beste herri batzuek sektore horietan arrakasta errepikatzea. Kezkatzekoa da oihalgintza eta jantzigintza estrategikoak izan direlako herrien industrializazio-bidean. Era berean, Txinak arriskuan jartzen ditu dagoeneko oihalgintzan eta jantzigintzan oinarrituta industrializatu diren hainbat garapen-bideko herri.

2. Txinako ekonomiaren bilakaera 1980ko hamarkadatik: lurralde-garapen desorekatua

Azkeneko hamarkadetan, Txinako ekonomiaren hazkunde-tasa garapen-bideko herrietako ekonomia baino askoz handiagoa izan da. Herrialde garatuen hazkunde tasa 1970eko hamarkadaren erdialdetik eta, batez ere, XXI. mendearen lehenengo urteotan bereziki baxua izan da. Bestetik, Txinako ekonomiak batez besteko hazkunde tasa % 9 izan du eta etorkizunerako aurreikuspenak oso baikorrrak dira (OCDE, 2005). Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundera oso altua eta iraunkorra izateak garatuago dauden ekonomiekiko aldea murriztu egin du eta, horren ondorioz, 250 milioi pertsonak pobrezia gainditu dute.

Hala ere, arlo askotako desberdintasunak nabarmenak dira Txinan: pertsonen errenta mailari dagokionez, Txinako eskualdeen arteko disparekotasunak eta hirien eta nekazaritza-guneen artekoak. Ekonomia-hazkundeak dauden desberdintasunak handitzen ditu eta nabarmena da dinamismo ekonomiko handiagoak ez diela onura bera ekartzen herriaren gune eta talde ekonomiko guztiei. Kostako aldea da garatzen ari dena. Errentaren banaketari dagokionez, Gini-ren indizea % 50 inguru handitu da 1982 eta 2002 bitartean, zeinak gizarte oso desberdinaren osaketa islatzen duen (PNUD, 2005b). Desberdintasun hauek gizarte-zerbitzuetan, osasunean eta hezkuntzan errepikatzen dira. Adibidez, gaur egun nekazaritza-guneetako biztanleriaren % 70-80k ez du osasun-estaldurarik Txinan zerbitzu publiko horrek pairatu duen pribatizazio-prozesua dela eta (PNUD, 2005a).


Txinako erregioen bilakaera geografikoki desorekatua ulertzeko 1979. urtean hasi zen irekitze-prozesua aztertu beharra dago. Txinako gobernuak urte hartan ezarritako irekitze-politika pixkanakakoa eta esperimentalak izan zen (Bustelo *et al.*, 2004). Atzerriko kapitalari Txinako lau gune mugatuetan bakarrik utzi zioten sartzeko: *Gune Ekonomiko Bereziak* (GEB) izenekoetan, non pizgarri fiskalak zein finantzarioak eskaintzen zituzten atzerriko inbertitzaileak erakartzeko xedearekin. GEBetan oso jarduera desberdinak aurki zitezkeen, sektore ekonomiko garrantzitsuenak ez ezik, hezkuntza, ikerketa eta garapen teknologikoko jarduerak, turismoa, kultura eta aisiako hornikuntza eta egoitza ere. Dena den, industria-sektorea

zen estrategiaren gakoa (Ge, 1999). Gune horien kokapena herrialdearen hazkunde-eredu desorekatuaren arrazoiatariko bat izango da: Guandong probintzian (Hong Kongetik hurbileneko portuetan) hiru GEB sortu ziren eta laugarrena Fujian probintzian, Taiwanen aurrean (ikusi 1. mapa). Gune horien kokapena ez zen ustekabekoa; izan ere, Hong Kong eta Taiwaneko kapitalaren sarrera bilatzen zen eta, bestalde, kostaldeko gune horietan ondasunen esportaziorako portuekin lotutako azpiegiturak zeuden.

Hasieratik Txinako gobernuak bi ekonomia horiekiko harremanak estrategikotzat jo zituen eta irekitze-prozesuan haien parte-hartzea bilatzen zen bereziki. Gainera, estrategia hau eta Hong Kongeko eta Taiwaneko ekonomien eboluzioa bat zetozen, zeren eta haien industrializazio-prozesua oso aurreratuta baitzegoen, eta horren ondorioz, alokairuak zein lurraren prezioak igotzeko joera erakusten zuten. Aldi berean, gero eta balio erantsi handiagoko jarduerak garatzen zeuden eta, horrela, balio erantsi txikiko eta lanesku kualifikatu gabeen intentsiboak diren jarduera industrialek Txinan kokatzeko aukera aprobetxatu zuten. Aipagarrieneraiko bat jantzigintzan izandako deslokalizazioa izango litzateke, Hong Kongeko industrializazio-prozesuan garrantzi handiko jarduera izan zena.

Irekitze-prozesuaren lehenengo fase honetan *Txina Handia* (Txina, Hong Kong eta Taiwan) osatzen duten ekonomien arteko harremanak finkatzen dira eta horrek Txinaren jantzigintzan dagoen lehiakortasun gorakorra azaltzen du.

1. mapa. Txinako Herri Errepublikako eskualdeak



Lehenengo GEBek lortutako arrakasta oso nabarmena izan zen, batez ere atzerriko inbertsioa erakartzeari, esportazioak handitzeari eta produkzio-dibertsifikazioari dagokienez. Horrek strategiaren onurak baieztatu egin zituen eta Txinako gobernuak beste eskualde zein sektore irekitzen zizkien ekimen pribatu eta atzerritar kapitalari. Horrela, 1980ko hamarkadan bosgarren GEB Hainan uhartean, 14 *hiri ireki* ekialdeko kostaldean eta ehunka garapen teknologikoko eta ekonomikoko toki ezarri ziren gune ireki horietako zenbaitetan. Prozesu horren

ondorioz, gaur egun ia ekialdeko kostalde osoa kanpoari irekita dago eta kostaldeko eta barnealdeko eskualdeen arteko garapen- eta hazkunde-jarraibideak oso desberdinak dira. Kostaldeko eskualdeetan per capita errenta askoz handiagoa da, barnealdeko eskualdeetan baino; Shangaiko kasua aipatzekoa da, herriaren hiriburu ekonomikoa baita. Era berean, Beijingek (hiriburu administratiboa) eta Fujian eta Guandong probintziek batez besteko per capita errenta baino askoz handiagoa dute (ikusi 1. taula eranskinean).

Txinako eskualdeetako Giza Garapenaren Indizearen datuak azaltzen dira 1. taulan. Bizi-itxaropenaren eta hezkuntzaren datuen jarraibidea errenta per capitaren datuenaren antzekoa da. Txinan bi errealitate sozial zein ekonomiko oso desberdin daudela baieztatzen dute datu horiek: alde batetik, kostaldeko eskualdeetan hazkunde ekonomikoa oso nabarmena eta bizi-itxaropenaren eta hezkuntzaren indizeak herri garatuetakoen antzekoak badira ere, barnealdeko eskualdeetan gaur egun oso urrun daude errealitate horretatik eta bizi-itxaropenaren eta hezkuntzaren indizeak kostaldekoak baino askoz apalagoak dira.

Era berean, aipatutako desberdintasunak genero-ikuspuntutik zehaztu beharra daude. Hezkuntzari dagokionez, analfabestimo-tasa % 16 da emakumezkoen kasuan, eta gizonezkoen % 6. Gainera, aldea eskualde atzeratuenetan handitzen da.

1. taula. Giza Garapenaren Indizea, eskualdeka. 2003

<i>Kostaldea</i>					<i>Barnealdea</i>				
Eskualdeak	GGI	Bizi-itxaropenaren indizea	Hezkuntzaren indizea	BPGren indizea	Eskualdeak	GGI	Bizi-itxaropenaren indizea	Hezkuntzaren indizea	BPGren indizea
Shanghai	0,909	0,901	0,908	0,919	Heilongjiang	0,786	0,821	0,850	0,686
Beijing	0,882	0,864	0,926	0,856	Jilin	0,776	0,804	0,874	0,650
Tianjin	0,855	0,849	0,890	0,824	Xinjiang	0,757	0,788	0,827	0,656
Zhejiang	0,817	0,835	0,836	0,778	Hubei	0,755	0,795	0,827	0,644
Liaoning	0,808	0,823	0,881	0,721	Shanxi	0,753	0,786	0,861	0,612
Guangdong	0,807	0,833	0,836	0,752	Hunan	0,751	0,794	0,843	0,615
Jiangsu	0,805	0,843	0,823	0,748	Chongqing	0,745	0,783	0,845	0,607
Fujian	0,784	0,821	0,801	0,729	Henan	0,741	0,800	0,809	0,615
Shandong	0,776	0,817	0,796	0,714	Inner Mongolia	0,738	0,762	0,807	0,643
Hebei	0,766	0,794	0,834	0,670	Jiangxi	0,732	0,753	0,847	0,594
Hainan	0,761	0,846	0,806	0,631	Guangxi	0,731	0,810	0,808	0,575
Guangxi	0,731	0,810	0,808	0,575	Shaanxi	0,729	0,769	0,829	0,589
					Sichuan	0,728	0,782	0,813	0,587
<i>Txina</i>	<i>0,746</i>	<i>0,773</i>	<i>0,819</i>	<i>0,646</i>	Anhui	0,727	0,800	0,793	0,588
					Ningxia	0,712	0,783	0,759	0,594
					Qinghai	0,684	0,730	0,713	0,608
					Gansu	0,675	0,730	0,749	0,547
					Yunnan	0,657	0,690	0,715	0,567
					Guizhou	0,639	0,694	0,731	0,491
					Tibet	0,586	0,680	0,478	0,599

Iturria: Informe de Desarrollo Humano para China, PNUD, 2005b.

Populazioaren arteko diru-sarreren eta gizonezko eta emakumezkoen arteko desberdintasun gorakorra ulertzeko orduan, nekazaritza-guneak uzten dituzten pertsonen egoera aztertu behar da. Hirietara joaten diren pertsonak ez dira *bertako* populaziotzat hartzen eta gizarte- eta osasun-zerbitzuetan eta hezkuntzarloan oso sarrera mugatua dute. Koalifikazio handiko enpleguetan ere baztertuta geratzen dira, bertako populazioak baino soldata txikiagoak dituzte eta enpleguarekin lotutako onura sozial gutxiago (pentsioak, langabezia-subsidioa, eta abar). Halako diskriminazioak nekazaritza-guneak laga dituzten 140 milioi pertsona kalte-tzen ditu eta industrian soldaten maila baxua mantentzeko laguntzen du (PNUD, 2005b). Epe laburrean migrazioak ez dira bukatuko kostaldeko eskualdeetan hazkunde ekonomikoa gero eta handiagoa delako (barnealdekoekin konparatuz) eta datozen 20 urteetan 200 milioi nekazari gaztek jarraibide bera eramango dutela estimatzen delako (*El País*, 2005). Emakume gazteak migrazio horien portzentaje oso altua dira eta oso lan-merkatu zatikatuta aurkitzen dute. Horrek kualifikazio zein soldata baxuko jardueretan kontzentrazioa suposatzen du.

Txinako gobernuak eskualdeen arteko desberdintasunak kontuan izanik, politika berezia inplementatu du, *Go West* izeneko. Estrategia hau barnealdeko eskualdeen garapena bultzatzen saiatzen da. Horretarako azpiegituren programak, inbertsioak erakartzeko pizgarriak eta garapen teknologiko eta ekonomikoko guneak abian jarri ditu. Era beran, politika honen bitartez, kostaldeko zenbait jarduera ekonomikoa barnealderantz zuzentzen saiatzen da, kostaldeko soldata handiagoek suposatzen duten lehiakortasun-galerak saihesteko xedearekin. Hala ere, ezarritako ekimenek oraindik oso arrakasta txikia izan dute eta kostaldeko eskualdeetan hazkunde-tasek askoz handiagoak izaten jarraitzen dute (Bustelo, 2005). Aldi berean, emigranteei zuzendutako politikak ere auki ditzakegu eta bertako populazioarekiko eskubide- eta aukera-parekotasuna bilatzen dute.

Txinako ekonomi hazkundearen oinarriak

Txinako ekonomi hazkundera industrian oinarritzen da. Kritika batzuen arabera, Txinako ereduak zerbitzuei arreta txikia eskaini die. Agintariak bigarren sektorea bultzatu dute batez ere eta bertan burutu dira inbertsiorik gehienak. Hala, gaur egunean Txina *munduaren fabrika handitzat* hartzen da. Garatu dituen industri sektoreen artean azpimarratzekoa da laneskuan intentsiboak diren adarren bizitasuna, baina 2004. urterako eskuragarri dauden azken datuek seinatlatzen dutenez, Txina munduko Informazio eta Komunikazio Teknologietako lehenengo esportatzaile bilakatu da, hala nola ibilgailuen munduko laugarren produktugilea 2005erako. Dena dela, esportazioaren eta fabrikazioaren gaineko datu agregatu hauek harremanetan daude Txinan dauden enpresa transnazional handien estrategiek. Era berean, osagaien inportazioak tamainu handia dauka.

Ekonomia honen hazkundera inbertsioak berebiziko papera eduki du, bai nazionalak zein kanpotarrak. Inbertsio nazionala oso altua izan da eta inbertsio osoaren % 90 baino gehiago da, nahiz eta burutu dituen proiektu batzuen errentagarritasuna oso txikia izan. Hala ere, guk Atzerriko Inbertsio Zuzenak (AIZ) aztertuko ditugu eta horiek dakartzaten teknologiaren transferentzia eta industriaren dibertsifikazioa. Arlo honetan funtsezko datu bi kontuan hartu beharrekoak dira: Txinak jasotako AIZek 1992. urtetik aurrera hartzen dute garrantzia eta ekonomia-inbertsitzaile nagusiak Hong Kong eta, oro har, Asiako Hego-ekialdeko ekonomiak dira.

Txinak jasotako AIZek 1979an eduki zuten hasiera eta 1991ra arte tamainu txikikoak izan ziren. Euren iturri nagusia Hong Kongen egoitza zuten enpresa txiki eta ertainak ziren eta Guandongeko probintzian dauden GEBetara zuzentzen ziren (Pingyao, 2002). 1992. urtea inflexio-puntua da Txinak jasotako AIZentzako, eta arrazoi nagusia Txinako gobernuak hartutako neurriak dira. Data horretarako atzerriko inbertsioarentzat faboragarriagoa den ingurumari legala kontsolidatzen da. Hala, atzerriko kapitaleko enpresak ezarri ahal izateko baldintzak bigundu egin ziren, % 100 atzerriko kapitaldun enpresak onartuz hainbat sektoretan eta, gainera, enpresa mota horiei barne-merkatuko ateak zabaltzen zaizkie telekomunikazioetan, garraioan, banka eta aseguruetan, eta beste sektore batzuetan. Beraz, Mendebaldeko enpresek inbertitu zezaten baldintza desiragarriak sortu ziren: erreferentziazko ingurumari legal iraunkorragoa eta erakargarriagoa eta barne-merkatuaren eskuragarritasuna. AIZak erakartzeko aplikatu zen politika horrek arrakasta handia eduki zuen: 1993an AIZen fluxuek (26 bilioi \$) gainditu egin zituzten aurreko hamairu urteetan metatutako fluxuak (23 bilioi \$ 1979 eta 1991 artean) (Zhang, 2002).

Beste alde batetik, Hong Kong da Txinak 1979tik gaur egunera arte jasotako AIZen jatorri nagusia eta Taiwanekin batera (1987tik garrantzitsua dena) Txinan 1979-2001 tartean metatutako AIZen % 56 adierazten dute (Zhang, 2005). Bere garrantzi erlatiboak 1992tik beherantz egin du eta orduan Triadatik etorritako AIZak garrantzitsuago bilakatzen hasi ziren (2. taula). Hong Kongekin edukitako harreman hauek hainbat faktorek azaltzen dituzte, bereziki arestian aipatutako Txinako gobernuak herri horrekiko burututako irekitze-politikak, eta *txinatar lotura* izenez ezagutu denak, hau da, herri bi hauen artean dauden harreman familiar, sozial eta kulturalak.

2. taula. Txinan metatutako AIZak jatorrizko herriaren arabera (%)

	1983-1990	1991-1995	1996-1998	1983-1998
Industrializatutako Herri Berriak	60,67	73,86	62,82	67,48
Hong Kong	58,53	58,85	45,22	52,42
Taiwan	1,06	9,84	7,30	7,85
Singapur	1,08	3,21	6,20	4,42
Koreako Errepublika	0,00	1,96	4,10	2,78
ASEAN 4	0,45	1,87	1,92	1,76
Japonia	13,68	6,87	8,60	8,30
Amerikako Estatu Batuak	12,07	7,40	7,96	8,09
Europar Batasuna	6,56	4,46	8,72	6,65
Garatutako beste herri batzuk	1,32	1,13	1,42	1,28
Asiako gainerakoak	0,70	1,88	1,22	1,46
Ekialdeko Europa	0,14	0,13	0,11	0,12
Latinamerika	0,12	0,51	5,51	2,82
Afrika	0,02	0,06	0,18	0,12
Guztira	100	100	100	100

Iturria: MOFTEC.

Oharra: ASEAN 4: Tailandia, Malasia, Filipinak eta Indonesia.

Hong Kongetik eta Taiwanetik eratorritako inbertsioa eta Mendebaldeko ekonomiatatik datorrena hainbat arlotan desberdintzen dira. Ikuspegi estrategikotik, lehenengoak produkzioaren esportazioa bilatzen du eta, bigarrenak, ostera, barnermerkatua du helburu. Hong Kongetik eta Taiwanetik eratorritako inbertsioa laneskuan intentsiboak diren sektoreetara zuzentzen da eta, geografikoki, esportatzeko egokienak diren kostaldeko eskualdeetan kokatzen da. Bere aldetik, Triadako herrietatik datorren inbertsioa kapitalean eta teknologian intentsiboak diren sektoreetara zuzentzen da, hala nola, energia, elektronika eta industria astunaren sektoreetara, beste batzuen artean, eta hiri handietan kokatzen da: Beijing, Shanghai, Guangzhou edo Nanjing, merkatu erregionaletarako merkataritza-zentroak direnetan (Zhang, 2005).

Per capita errentaren datuekin bat, kostaldeko eskualdeak AIZ-fluxuen hartzaile nagusiak dira eta bertan jarduera produktiboa kontzentratzen da (2. taula eranskinean). Ageri denez, kostaldeko eskualdeek AIZ-fluxuen % 86,5 jasotzen dute eta horrek herriko bi eskualdeen arteko aldea handitzen laguntzen du. Ekonomia-inbertitzaile nagusietatik hurbil egoteak, aglomerazio-ekonomia handien existentziak, kontsumoko merkatu handien kontsolidazioak eta azpiegitura handien garapenak ekartzen dute kostaldea Txinako ekonomi garapenaren gunerik garrantzitsuena izatea (Bustelo, 2005).

3. Txinaren abantaila konpetitiboa oihalgintzan eta jantzigintzan

Oihalgintzaren eta jantzigintzaren azterketa baliagarria da merkatu-ekonomiaren funtzionamendua ulertzeko eta Txinako eskualdeen ibilera desorekatua azaltzeko. Ikusiko dugunez, kapitala, giza baliabideak, enpresa-clusterrak eta antzeko lehiakortasun faktoreak urriak dira eta leku zehatzetan pilatzen dira.

Txinan oihalgintza eta jantzigintza nahikoa garatu dira. Hala ere, herri industrializatuek sektore horietan ezarritako babesgintzak artifizialki mugatu izan du Txinaren potentzialitatea. Babesgintzaren barruan, muga-sariak, eta beste neurri batzuen artean, kuotak funtsezkoak izan dira. Azken horien bitartez garapenbideko herri bakoitzak esportatutako oihalen eta jantzien zenbatekoa mugatuta egon da. Horrek potentzialitate handiko herri pobreak, Txina eta India adibidez, kaltetu egin ditu herri industrializatuetako produktugileak babesteko asmoz. Eta zeharka, aldi berean beste herri pobre batzuk faboratu egin ditu: Bangladesh, Sri Lanka, Kanbodia eta Dominikar Errepublika, besteak beste.

Dena dela, puntu honetan aldaketa handia dago Munduko Merkataritza Erakundearen barruan gertatzen ari den liberalizazio-prozesuarekin. Horrek 2005eko urtarrilerako babesgintza osoa ez, baina kuoten existentzia ezabatu egin du. Horrek Txinari eta antzeko handiei ateak gehiago zabalduko dizkie eta erronka nahikoa adierazten du herri industrializatuentzat eta baita arestian aipatu ditugun herri pobrentzat ere. Baina arazo hauetaz hitz egin ahal izateko, lehenengo eta behin oihalgintza eta jantzigintza sektoreen azterketari heldu behar diogu.

Oihalgintza eta jantzigintzaren izaera eta lehiakortasun-faktoreak


Oihalgintza eta jantzigintza, uste zabal baten arabera, sektore tradizionalak dira, zaharkituak, teknologia maila apalekoak eta laneskuan intentsiboak.

Ondorioz, iritzi berari jarraituz, industrializatutako estatuek ezingo lukete ezer egin garapen-bideko herrietako produktugileen aurrean.

Oihalgintzak eta jantzigintzak I+Gn gutxi gastatzen dutela ikusita, jende askok teknologia apalekotzat hartzen dituzte sektore hauek. Dena dela, guk iritzi hori kritikatu dugu. Sektore batek, ikusiko dugunez, I+Gn egindako ahaleginaz gain, beste bide batzuk ditu teknologikoki gaurkotzeko: teknologiaren erosketa, diseinua eta ingenieritza, giza kapitalean egindako ahalegina, kudeaketa-kapitala, harremanen kapitala eta clusterrak, eta abar (Porter, 1990; Singleton, 1997).

Hasteko, oihalgintza eta jantzigintzaren artean bereizi beharra dago (1. irudia). Oihalgintza, jantzigintza ez bezala, kapitalean intentsiboa da eta garapen-bideko herriek adar hori neurri apalagoan garatu ahal izan dute jantzigintza baino. Oihalgintzak harreman handia dauka kimikarekin eta ekipo-ondasunen produktugileekin. Azken horiei makinak eta inputak erosiz oihalgintza teknologikoki ondo gaurkotzen da: material berriak sortu dira, produktu sintetikoak batez ere, produktibitateak goera handia eduki du, eta abar.

1. irudia. Oihalgintzaren eta jantzigintzaren balio-katea



Iturria: Dicken, 2003.

Ostera, jantzigintzako pauso batzuetan ez da aldaketa esanguratsurik egon azken mendeetan eta prozesua laneskuan intentsiboa da. Dena dela, sektorea diseinuan ere intentsiboa da. Azken pausu hori informatizatua izan da eta bertan herri industrializatuek nagusitasunari heltzen diote. Hala, jantzigintzaren barruan produktuen artean desberdinu beharra dago: produktu arruntak batetik eta modazkoak eta balio erantsi altukoak bestetik. Lehenengo kasuan laneku ez-kualifikatua eta merkea funtsezko aldagaia da lehiakortasuna lortzeko. Ostera, modazko jantziak serie laburretan produzitzen dira, makinak horretarako programatu behar dira, diseinua garrantzitsua da, bukaera perfektua izan behar da eta laneku kualifikatuagoa garrantzitsua da... Ondorioz industrializatutako herriek nagusitasunari heltzen diote modazko produktuetan.

Gereffi-ri jarraituz, oihalgintza-jantzigintzaren balio-katean banaketak agintzen du. Banatzaileek mozkin handienak lortzen dituzte eta balio-kateko gainerako

kate-begiei exigentziak inposatzen dizkiete, hornitze-datak besteak beste. Banatzaile batzuk merkatari orokorrak dira: Wall Mart, Marks & Spencer, eta antzekoak. Beste batzuek diseinatu eta banatu egiten dute, baina ez daukate fabrikarik: Mango, Liz Claiborne edo Nike. Beste batzuk fabrikak dituzte eta baita banaketa-sare propioa ere: Zara, H&M, eta abar.

Azken produktugile horien kasuan banaketa integratzea funtsezkoa izan da. Alde batetik, eurenak ez diren banatzaileek mozkinik handienak eskuratzea saihesten dute. Bestetik, merkatuaren gaineko ezagutza handiagoa lortzen dute. Arlo honetan, Salmenta Toki Elektronikoen (STE) agerpena iraultzailea izan da eta saltzaileei euren salmenten gaineko berehalako kontrola eramatea ahalbidetu die. Berau funtsezkoa da; izan ere, garai batean diseinatzaileek merkatuari joerak inposatzen bazizkioten ere, gaur egunean alderantziz gertatzen da eta jantzigileek belarria erne eduki behar dute.

Modazko jantzien kasuan, bereziki, joera-aldaketak ugariak izaten dira eta merkatuari azkar erantzutea erabakigarria da. Horretarako merkatutik gertu egotea gauza handia da eta clusterrak garrantzitsuak dira, hau da, leku berean pilotzen diren oihalgile, jantzigile eta banatzaileen arteko elkarlana. Enpresen arteko lotura horiek antolatzen jakin egin behar da (harremanen kapitala eduki behar da), eta enpresak kudeatzen jakin egin behar da (kudeaketa-kapitala). Horrek guztiak, laneku kualifikatuaren eskaintzarekin batera, industrializatutako herriei balio erantsi altuko zatiari eustea ahalbidetzen die, ez bakarrik diseinuari eta banaketari utsiz; horrez gain manufakturan ere aritzen dira.

Distantziak duen garrantziagatik oihalgintza-jantzigintzaren munduko merkatua erregionalizatuta dago. Latinoamerika eta Karibe garrantzitsuak dira AEBrentzat; berdin gertatzen da Ekialdeko Europa, Turkia eta Afrikako Iparraldearekin Europar Batasunaren kasuan. Dena dela, horrek ez du esan nahi Txinak egindako lehia handia ezin izan daitekeenik, batez ere produktu zehatzetan. Izan ere, jarraian ikusiko dugunez, Txina, bere garaian beste garapen-bideko herri batzuk bezala, aurrerapenak egiten ari da balio-katean eta herri industrializatuak eta horiengandik hurbil dauden garapen-bideko herriak ezin dira lo geratu.

Garapen-bideko herrien aurrerapena oihalgintza-jantzigintzan

Garapen-bideko herriak behetik sartzten dira balio-kateetan. Kasu honetan jantzigintzatik sartzten dira laneskuan intentsiboak diren muntaiak egiten. Horrek balio erantsi gutxi sortzen du eta irabaziak txikiak izaten dira. Bigarren une batean garapen-bideko herriak *pakete osoko* produkziara pasa daitezke. Horrekin azpikontratazio industrialetik komertzialera pasatzen dira. Ingelesez *Original Equipment Manufacture* (OEM) deitzen diote. Hau da, industrializatutako herrietatik diseinua eta aginduak bidali eta hortik aurrera garapen-bideko herriko jantzigilea gai da produkzio guztia bideratzeko. Besteak beste, gaitasuna du diseinuak ulertzeko eta behar diren input-hornitzaileak bilatzeko. Pakete osoko produkzio horretara pasatzeko komenigarria da nazio horretan oihalgintzaren sektorea sortzea eta oihalgintzaren eta jantzigintzaren arteko harremanak sendotzea.

Asiako Ekialdeko garapen-bideko herriak arrakastatsuenak izan dira prozesu horretan. Han *produkzio triangeluarra* ere garatu da. Hau da, pakete osoko

produkzioa Hong Kongen edo Korean bakarrik abian jarri beharrean, inguruko beste herrietara ere pauso batzuk desbideratu dituzte, merkeagoa gertatzen zelako edo euren jatorrizko herriak jantzien esportazio-kuotak agortuta zeuzkalako.

Hirugarren urrats batean, garapen-bideko herriek diseinu propioarekin produzitu dezakete: *Original Design Manufacture* (ODM). Azkenik, laugarren pausu batean garapen-bideko herrietako jantzigileek marka propioekin produzitu dezakete: *Original Brand Manufacture* (OBM) eta banaketa-sareak garatu.

Azkenik, azken aurrerapena balio-kate batetik beste batera pasatzea izango litzateke. Adibidez, Taiwani telebisten produkzioan edo balio-katean egindako aurrerapena baliagarria izan zitzaion ordenagailuen produkzioan sartzeko. Era berean, oihalgintzan eta jantzigintzan egindako aurrerapenak arlo askotan (giza kapitala, kudeaketa-kapitala, clusterrak eta harremanen kapitala, eta abar) beste sektore batzuk garatzeko oinarriak izan daitezke.

Dena dela, balio-katean aurrera egitea ez da erraza. Gorago ikusi dugunez, oihalgintza eta jantzigintza ez dira jendeak uste bezain errazak. Asiako Ekialdeko herriek arrakasta eduki dute baina industri politika aktiboari esker: merkataritza-babesgintza oihalgintzarentzat adarra garatu arte, enpresentzako laguntzak, enpresa publikoak, eta abar (Lall, 1996; Humphrey eta Schmitz, 2002). Txina politika hau errepikatzen saiatzen ari da. Ostera, beste garapen-bideko herri batzuk, Latinoamerikakoak eta Karibekoak adibidez, politika liberalagoak aplikatzera behartuta egon dira eta *balio erantsi txikiaren tranpan* harrapatuta daude (CEPAL, 2004).

Oihalgintza eta jantzigintza Txinan

Sektore honek Txinan izan duen garapena ulertzeko geografi esparru zabalagoa hartzea beharrezkoa da, zehazki Hong Kongek paper erabakigarria izan du honetan guztian. Izan ere, oihalgintza eta jantzigintza oso garrantzitsuak izan ziren Hong Kongeko ekonomiaren garapenean, eta 1979. urtean Txinak ate irekiak estrategia abiatzen duenean, Hong Kongeko enpresek lanean intentsiboak ziren produkzio-prozesuaren atalak Txinara eramatea posible ikusten dute, balio erantsi garaiagokoak Hong Kongen bertan mantenduz.

Denboraren joanean, ordea, Txinara bideratutako jarduerak gero eta konplexuagoak izan dira, produkzio-prozesuko balio erantsi handiagoak bertan ekoitziz. Horrela egun produkzio-prozesu integratu eta osoa du, bere ahuldade nagusiak diseinuan eta zaharkitutako tresnerian daudelarik, esfortzu handiak egiten ari diren esparruak badira ere, batez ere makineriaren inportazioari dagokionez (Condo eta besteak, 2005).

Hong Kong bere aldetik, jantzigintzako produktuen erregio mailako kontratazio-gune garrantzitsua bihurtzen da, balio erantsi garaieneko jarduerak eta industria horri lotutako zerbitzuak bereganatuz, hala nola, produktuaren garapena, materialen hornikuntza, kalitate-kontrola, merkataritza-jardueren finantziazioa eta garraio eta banaketaren logistika (USIC, 1999). Txinaren baitan ere aldaketa nabarmena gertatu da azken hamarkadetan lan intentsiboak diren jardueren banaketan, kostako hegoaldeko iparraldera lehenengo, eta geroago herrialdearen barnealdera.

Azken bi hamarkadetan, Iparraldeko herrialdeek eraturako babes-neurriak garrantzitsuak izan arren, Txina jantzien munduko lehenengo esportatzaile bihurtu da eta oihalgintzako produktuen bigarrena. Are gehiago, eta hein batean jaso behar izan dituen kuoten mugak eraginda, esportaturiko produktuen kalitatea eta balioa handitzen joan dira, eta horrela produkzio-kateatzeak garatu ditu lehengaitik abiatuta bukatutako produkturaino, pakete osoa deritzan produkzio-prozesuaren mailara igoz. Produkzio-ahalmen horri esker, Txina lehia daiteke industrializatutako herrietako merkatuetatik askoz hurbilago dauden garapen-bideko beste herri batzuekin. Izan ere, horiek sarri Txina baino atzeratuago daude eta aurrez inportatutako lehengaien jostean eta antzeko jarduera errazetan finkaturik gelditu dira.

Txinako gobernuaren datuen arabera oihalgintzak eta jantzigintzak 19 milioi txinatarrei ematen diete lana gaur egun (gehienak emakume gazteak), eta beste 80 milioi inguruk horien inguruko enpresetan egiten dute lan (OIT, 2005). Oihalgintza eta jantzigintzaren egiturak oso desberdinak dira, bigarrena lehiakorragoa delarik nazioarte mailan. 3. taulan 5 milioi yuan edo gehiagoko fakturazioa duten sektore hauetako enpresen arteko aldeak ikus daitezke, sektorean garrantzia duten tamaina txiki eta ertaineko enpresak alde batera utzita. Oihalgintza sektorean oraindik galerak dituzten enpresa estatalek dira, sektore horren izaera estrategikoagatik eta lanpostuekiko sistemaren konpromisoagatik. Hala ere, sektorea modernizazio hazkorra eragiten ari den birmoldaketa-prozesu sakonean dago. Jantzigintzan, prozesu honetan atzerriko enpresen finantziarioa duten enpresen kopurua eta beren errentagarritasuna handiagoak dira.

3. taula. Txinako oihalgintza eta jantzigintzako sektoreen adierazleak, 1999						
	<i>Oihalgintza sektorea</i>			<i>Jantzigintza sektorea</i>		
	Enpresa guztiak	Estatuaren jabetzako enpresak	Atzerriko finantziatutako enpresak	Enpresa guztiak	Estatuaren jabetzako enpresak	Atzerriko finantziatutako enpresak
Enpresen kopurua	10.981	3.011	3.032	6.611	792	2.864
Salmentak (mila milioi yuan)	414,8	148,2	88,3	184,7	13,5	90,9
Sektoreko salmenten zatia	100,0	35,7	21,3	100,0	7,3	49,2
Balio erantsia produkzioaren %-tan	24,7	26,9	24,2	24,8	28,4	24,9
Langileko balio erantsia (urteko yuanak)	21.900	15.300	38.500	24.500	16.800	25.800
Mozkinak (mila milioi yuan)	3,90	-0,14	1,29	6,20	0,13	2,64
Mozkinak, salmenten %-tan	0,94	-0,09	1,46	3,36	0,96	2,90

Iturria: Trade and Development Report, UNCTAD, 2002.

Sarritan aipatzen da Txinaren abantaila kompetitibo behinena oihalgintza eta jantzigintza sektoreetan lan-kostu merkeak direla. Baieztapen horrek, ordea, bere ñabardurak behar ditu, zeren industria mota hau lekutzen den kostaldeko lurraldeetako lan-kostuak garaigoak baitira bai herrialdeko gainerako lurraldeetako koekiko bai inguruko herrialdeenekiko. Beraz, lan-kostu baxuek abantailaren zati bat baino ez dute azaltzen, eta bestelako faktore gehigarriak dira gainerako hegoaldeko herrialdeenekiko Txinak duen abantailaren erantzule. Horien artean, honakoak aipatu behar dira: produktibitate maila garaia, eskala-ekonomiak, azken

produktuen kalitatea, hornitzaileen fidagarritasuna produktuak garaiz entregatzeko orduan, produktu osoa egiteko gaitasuna eta emate-denborak murrizten dituzten garraio-logistika eta azpiegiturak.

Era berean, erabakigarria da Hong Kongen egoitza duten eta Iparraldeko banatzaile nagusientzat zonan produkzioa antolatzen duten bitartekari-enpresa handiekin duen erlazioa. Izan ere, azken urteetan laneskuan intentsiboak diren produkzio-atalak lan-kostu merkeagoak dituzten zonako herrialdeetara bideratu dira, Hong Kong, Txina eta lan-kostu merkeko bestelako zenbait herrialderen arteko *produkzio triangeluarra* sortuz inguruan.

4. Azken zehaztapenak eta etorkizunari buruzko aurreikuspenak

Kuota-sistemaren amaierak argi erakutsi du sektore honetan Txinak duen garrantzia. Herrialde garatuak lanpostuen galeren inguruan kezkatuta daude eta horrek argi adierazten du 10 urteko trantsizio-epea ez dela behar bezala erabili sektoreak behar zuen birmoldaketa egiteko. Ondorioz, industrializatutako herrialdeek euren merkatuak babesten saiatzen jarraitzen dute oraingoan beste bide batzuk erabiliz, hala nola, 2001. urtean Txina MMEEn txertatu zeneko sarrera-dokumentuan agertzen diren salbuardia-klausulak.

Kezka hau ez da herrialde garatueta mugatzen, baizik eta badira aurreko kuota-sistema artifizialaren bitartez onuradunak izan diren Hegoaldeko herrialde kopuru garrantzitsua egoera horretan ere daudenak. Alde batetik, badira zenbait garapenbideko herrialde kuoten mugarik ez zutenak, non sektoreko enpresa transnazionalak kokatu ziren AEB eta Europako kontsumo-merkatuetarako produktuak bideratzeko asmoz. Beste alde batetik, badira kontsumo-merkatuetatik hurbil diren zenbait herrialde merkataritza-hitzarmen berezien bitartez onurak izan dituztenak jantzien batzea beren lurraldean egiteko, eta oraingo testuinguru berrian mehatxupean aurkitzen direnak. Batez ere, Karibeko herrialdeak, Mediterraneoko herrialdeak eta Europako Ekialdekoak.

Kuotarik gabeko testuinguru berri honetan bi herrialde agertzen dira irabazle argi eta garbi: Txina eta India. Izan ere, herrialde horien esportazio-ahalmena mugatu du bereziki aurreko sistemak denbora luzez eta eurak dira horren desagerpenaren lehen onuradunak. Hala ere, gutxienez Txinaren kasuan, ez du ematen bere industrializazio-estrategia sektore honetan oinarrituko denik, gobernu txinatarraren helburua *teknologia eta berrikuntzari* begirako estrategiak ezartzea delako. Estrategia hori gauzatuko balitz, esportazio-jarduera oihalgintzan eta jantzigintzan oinarritu duten hegoaldeko herrialde askorentzat albiste ona litzateke. Izan ere, sektore horien barne-merkatuen garapenak eta bestelako produktuen garrantzi hazkorrak Txinako esportazioetan hurrengo urteetako nazioarteko jokalekuan aldaketa garrantzitsua eragin dezakete.

Kontsumo-merkatuetatik hurbil diren Hegoaldeko herrialdeen egoera ere oso kezkarria da. Izan ere, herrialde horiek hurbiltasun fisikoa eta lehentasunezko merkataritza-hitzarmenen onurak azken muturreraino eramane dituzte, helmuga-herrialdeen baldintza inposatuen menpe geratu dira eta, ondorioz, balio erantsi apaleko batze-lanetara mugatu. Horien etorkizuna konplexutasun eta balio erantsi

garaiagoko jardueretara igarotzeko ahalmenean eta emate-epe laburretan oinarritzen da eta modaren inguruko merkatuetara zabaltzeko gaitasunen menpe izango da.

Txinaren eraginpeko zonatik zein merkatu handietatik urrun diren baina kuoten babesean jarduera hauek garatu dituzten Hegoaldeko herrialdeak dira egoera berriko galtzaile nagusiak, esaterako, Leshoto, Madagaskar, Maurizio, eta abar (OIT, 2005).

Oraindino ez dago argi zeintzuk izango diren Txinaren (munduko merkatu nagusiaren) irekiera eta garapen potentzialaren ondorioak. Industrializatutako estatuetako oihalgileentzat eta jantzigileentzat, mehatxuak ez eze, Txinak aukerak ematen ditu: makineria eta lehengaien salmenta; merkatu txinatarrean modazko jantziak diseinuan eta marketan oinarrituta saltzea; aholkularitza eskaintzea; merkaturatze- eta banatze-zerbitzuak ahaztu gabe. Beraz, negozio-aukera zabalak irekitzen dira.

Eranskina

1. taula. Biztanleko errentaren indizea, eskualdeka, 2003.

Kostaldea		Barnealdea	
Beijing	271,01	Shanxi	62,85
Tianjin	224,28	Inner Mongolia	75,86
Hebei	88,87	Jilin	78,93
Liaoning	120,52	Heilongjiang	98,18
Shanghai	394,91	Anhui	54,56
Jiangsu	142,09	Jiangxi	56,45
Zhejiang	170,30	Henan	63,99
Fujian	126,62	Hubei	76,17
Shandong	115,48	Hunan	63,85
Guangdong	145,50	Chongqing	60,94
Guangxi	50,46	Sichuan	54,25
Hainan	70,30	Guizhou	30,46
		Yunnan	47,86
		Tibet	58,08
		Shaanxi	54,78
		Gansu	42,45
		Qinghai	61,51
		Ningxia	56,56
		Xinjiang	81,99

Iturria: Norberak egina. Anuario Estadístico Chino, 2004.

2. taula. Egindako atzerriko inbertsio zuzena, eskualdeka, 2003.

Eskualdea	AIZ	Eskualdea	AIZ
Beijing	219.126	Shanxi	21.361
Tianjin	153.473	Inner Mongolia	8.854
Hebei	96.405	Jilin	19.059
Liaoning	282.410	Heilongjiang	32.180
Shanghai	546.849	Anhui	36.720
Jiangsu	1.056.365	Jiangxi	161.202
Zhejiang	498.055	Henan	53.903
Fujian	259.903	Hubei	156.886
Shandong	601.617	Hunan	101.835
Guangdong	782.294	Chongqing	26.083
Guangxi	41.856	Sichuan	41.231
Hainan	42.125	Guizhou	4.521
Kostaldea	4.580.478	Yunnan	8.384
		Tibet	-
		Shaanxi	33.190
		Gansu	2.342
		Qinghai	2.522
		Ningxia	1.743
		Xinjiang	1.534
		Barnealdea	713.550

Iturria: Norberak egina. Anuario Estadístico Chino, 2004.

Bibliografía

- Brown, Colin G.; Waldron, Scott A. eta Longworth, John W. (2005): *Modernizing China's Industries. Lessons from Wool and Wool Textiles*, Edward Elgar, Cheltenham, UK eta Northampton, MA, USA.
- Bustelo, P. (2005): "Las bocas del dragón: Las regiones costeras de China y las economías de aglomeración", in *Claves de la Economía Mundial*, Instituto Español de Comercio Exterior (ICEX).
- Bustelo, P.; García, C. eta Olivé, I. (2004): *Estructura económica de Asia Oriental*, Ed. Akal.
- Cacho Quesada, L. (2004): "Panorama económico en China", *Boletín económico de ICE*, **2806**.
- CEPAL (2004): *La inversión extranjera en América Latina y el Caribe 2003*, Naciones Unidas, CEPAL
- Dicken, P. (2003): *Global Shift: Reshaping the global economic map in the 21st century*, Fourth Edition, The Guilford Press, New York eta London
- Ge, W. (1999): "Special Economic Zones And The Opening Of The Chinese Economy: Some Lessons For Economic Liberalization", *World Development* 27 lib., **7**, 1267-1285.
- Gereffi, G.; Humphrey, J. eta Sturgeon, T. (2005): "The governance of global value chains", *Review of International Political Economy*, **12:1**, 78-104.
- Humphrey, J. eta Schmitz, H. (2002): "How does insertion in global value chains affect upgrading in industrial clusters?", *Regional Studies*, **36.9**, 1017-1027.
- Lall, Sanjaya (1996): *Learning from the Asian Tigers: Studies in Technology and Industrial Policy*, Macmillan Press Ltd eta St. Martin's Press Inc, London eta New York.

- Mayer, J. (2004): "Not totally naked: Textiles and clothing trade an a quota free environment", *UNCTAD Discussion Papers*, **176**.
- Nordas, H.K. (2004): "The textile and clothing industry post the agreement on textiles and clothing", *WTO discussion paper*, **5**, WTO, Geneva.
- OECD (2004): "A new world map in textiles and clothing: adjusting to change", OECD, Paris.
- , (2005): OECD economic outlook, Preliminary Edition.
- OIT (2005): "Promoción de un llobalización justa en el sector de los textiles y el vestido tras la expiración del Acuerdo Multifibras", Departamento de actividades sectoriales, Geneva.
- Pingyao, L. (2002): "Foreign Direct Investment in China: Recent Trends and Patterns", en *China&World Economy*, **2**, 25-32.
- PNUD (2005a): "Informe sobre el desarrollo humano 2005. La cooperación internacional ante una encrucijada: ayuda al desarrollo, comercio y seguridad en un mundo desigual", PNUD-Mundi prensa, New York.
- , (2005b): *China Human Development Report 2005*, Hemen eskuragarria: <www.undp.org>.
- Porter, Michael E. (1990): *The Competitive Advantage of Nations*, Macmillan, London.
- Singleton, John (1997): *The world textile industry*, Routledge, London and New York
- USITC (1999): "Assessment of the Economic Effects on the United States of China's Accession to the WTO", Investigation No. 332-403 Publication 3229, U.S. International Trade Commission, Washington
- UNCTAD (2002): *Informe sobre el comercio y el desarrollo, 2002. Los países en desarrollo y su inserción en el comercio mundial*, Hemen eskuragarria: <www.unctad.org>.
- Zhang, K.H. (2002): "Why Does China Receive So Much Foreign Direct Investment?", *China&World Economy*, **3**, 49-58.
- , (2005): "Why does so much FDI from Hong Kong and Taiwan go to Mainland China?", *China&World Economy*, **16**, 293–307.

